Zangoza / 2021

# KULTURA AGENDA

## otsaila



Ayuntamiento de Sangüesa/Zangoza

Palacio Vallesantoro

Nafarroako Gobernua

NAFARROAKO ANTZOKI SAREA

## Vallesantoro Jauregia/Kultura-etxea

Gomendatzen da lehentasunik ez duten kudeaketak aurrez aurre ez egitea oraingoz, 948 870 251 telefonora deituz edo infocultura@sanguesa.es helbidera posta bat bidaliz. Goizez, astelehenetik ostiralera, 09:30etik 14:00etara, eta arratsaldez, 18:00etatik 21:00etara, asteartetik larunbatera.
**Kultura-zerbitzuko Arreta Ordutegia:** Astelehenetan 9.30etik 14:00etara eta asteartetik ostiralera 9.30etik 14:00etara eta 18:00etatik 21:00etara.
**Erakusketa Aretoko Ordutegia:** Asteartetik larunbatera, 19.00etatik 21:00etara. Igande eta Jaiegunetan 12.00etatik 14:00etara.
**Helbidea:** Alfontso Borrokalaria Karrika 20. Tfnoa: 948 870 251.
Kultura-agenda posta elektronikotik jaso nahi baduzu, helbide honetara eska dezakezu: infocultura@sanguesa.es.
Facebooken eta www.sanguesacultura.es web-orrian gure kultura-agendari segi diezaiokezu eta datuak babesteko legea honakoetan kontsultatu:

www.facebook.com/culturasanguesa

www.instagram.com/culturasanguesa

## Karmengo Entzunaretoa

Aldez aurreko salmenta: **otsailaren 2tik aitzina** Vallesantoro Jauregia/Kultura-etxean, asteartetik ostiralera, 12:00etatik 14:00etara eta 19:00etatik 21:00etara, eta Internetetik www.sanguesacultura.es eta www.sanguesa.es web-orrien bidez.
**Tfno:** 948 870 251.
**Salmenta txartel-leihatilan antzezpen egunetan:** Karmengo Entzunaretoko txartel-leihatila zabalik egonen da (sarrerarik izanez gero), 18:00etatik 18:30era helduen saioetarako eta 17:00etatik 17:30era haur eta sendienetarako.
**Tfno:** 948 870 632.
Ikuskizun guztietarako sarrera gehienezko kopurua laukoa izanen da lagun eta ikuskizun bakoitzeko. Ez dira onartuko telefonoz eginiko erreserbak. Behin hartuz gero, ez da aldaketarik, ezta itzultzerik ere onartuko
Ikuskikunaren etena sarreren zenbatekoa itzultzeko kausa bakarra izango da.
**Beherapenak Gazte txartelarekin:** 14 eta 30 urte bitartekoa bazara, hala adierazten den saioetan beherapenez gozatu ahal izanen zara. Gazte txartela leihatilan aurkeztu beharko da entzunaretora sartzean.

**ENTZUMENA HOBETZEKO ANTZERKI IRISGARRIA**
Karmengo Entzunaretoak badauka begizta magnetikoko sistema bat inguruko hotsa kendu ahal izateko. Hartara, entzumen-arazoak dituzten lagunek ikuskizunez hobeki gozatzen ahal dira. ERNE! sistema hau audiofonoa erabiltzen dutenek ez ezik ongi entzuten ez dutenek ere erabiltzen ahal dute inolako aparaturik eraman ez arren.
Bi kasuetan entzungailua edo begizta aretoko langileei eskatu behar zaizkie.

**ANTZERKI IRISGARRIA MUGIKORTASUN MURRIZTUA DUTEN LAGUNENDAKO**
Karmengo Entzunaretoak mugikortasun murriztua duten lagunendako gune bat gordetzen du. Eserleku hauetako bat hartu behar bada edo erreserba hau egiteko laguntza behar baduzue, jarri harremanetan Kultura-zerbitzuarekin infocultura@sanguesa.es posta elektronikoan edo deitu 948870251 telefonora.

**Covid19 dela kausa, Zangozako Udalak Vallesantoro Jauregia/Kultura-etxean eta Karmengo Entzunaretoan beharrezko neurriak ezarri ditu. Kontsulta ditzakezu www.sanguesacultura.es eta www.sanguesa.es web guneetan.**

**Zangozako Udalak ez du bere gain ardurarik hartzen, aldatzen diren edo betetzen ez diren ekitaldiengatik, baldin eta hauek egitarau honetan ez badira aditzera eman.**

D.L.: NA 1735-2012

aurkibide
kronologikoa

Zangoza / 2021

# KULTUR AGENDA

## otsaila









| | | | |
|---|---|---|---|
| 1 | Al | Erakusketa. Pedro Salaberri. “Mirar lejos” (otsailaren 7a bitarte) | 4. Orr. |
| 2 | As | | |
| 3 | Az | | |
| 4 | Og | Mendiari buruzko jardunaldiak. Proiekzioa. “Mendi biluztua” | 10. Orr. |
| 5 | Os | Mendiari buruzko jardunaldiak. Proiekzioa. 2020ko Mendi Film jaialdiko pelikulak | 10. Orr. |
| 6 | La | Jazz Musika. Oskar Lakunza & Iñigo Cuenca Quintet | 5. Orr. |
| **7** | Ig | | |
| 8 | Al | | |
| 9 | As | Musika Eskolako ikasleen kontzertua | 9. Orr. |
| 10 | Az | Ipuin kontalaria (gaztelaniaz). “Cuentos febriles” | 7. Orr. |
| 11 | Og | Erakusketa. “Zangoza Berria”. Planoak eta maketak (otsailaren 28a bitarte) | 4. Orr. |
| | | Hitzaldia. “Zangoza Berria” | 8. Orr. |
| 12 | Os | | |
| 13 | La | | |
| **14** | Ig | Antzerkia, txotxongiloak. “Canciones de titiriteros” | 5. Orr. |
| 15 | Al | | |
| 16 | As | | |
| 17 | Az | | |
| 18 | Og | Hitzaldia. “Zangozako dokumentu-ondarea: erudiziotik kudeaketara” | 8. Orr. |
| 19 | Os | | |
| 20 | La | Antzerkia. “Losers” | 6. Orr. |
| **21** | Ig | | |
| 22 | Al | | |
| 23 | As | | |
| 24 | Az | Ipuin kontalaria (euskaraz). “Ipuin bat asteko egun bakoitzerako” | 7. Orr. |
| 25 | Og | Hitzaldia. “Zentral hidroelektrikoak Nafarroan” | 9. Orr. |
| | | Musika Eskolako ikasleen kontzertua | 9. Orr. |
| 26 | Os | | |
| 27 | La | Dantza “Tránsitos” | 6. Orr. |
| **28** | Ig | | |


Azaleko irudia: Amico Teatro, “Tránsitos”.

# Erakusketak





**"Mirar Lejos"**
PEDRO SALABERRI

**OTSAILAREN 7A BITARTE**

“Normalean, ibiltzean urrutira begiratzen dut, eta gustatzen zait ostertza ixten duten eta lehen planoak bizitzeko leku bihurtzen dituzten mendiak ezagutzea.Ilusioa egiten dit sinesteak mendi haien atzean zain ditudan beste paisaia batzuk daudela.” *Pedro Salaberri.*

**Lekua:** Vallesantoro Jauregia/Kultura-etxeko Erakusketa Aretoa.
**Laguntzailea:** Nafarroako Gobernua.





**“Zangoza Berria”. Planoak eta maketak**

**OTSAILAREN 11TIK 28RA**

Zangoza Berriari buruzko erakusketa. Santos Angel de Ochandateguik 1787ko uholdeak Zangoza suntsitu zuenean proiektatu zuen hiri neoklasikoaren planoak eta maketak. Aurkeztutako lana UPV/EHUko Arkitektura Eskolako irakasle-talde batek garatutako ikerketa-proiektuaren parte da. Erakusgai dagoen materiala 2021eko azaroan Donostian Arkitekturaren Nazioarteko Bienala dela eta eginen den erakusketa zabalago batekoa da.

**Lekua:** Vallesantoro Jauregia/Kultura-etxeko Erakusketa Aretoa.
**Laguntzailea:** Nafarroako Gobernua.

**Bisita-ordutegia:** Asteartetik larunbatera 19:00etatik 21:00etara. Igandeetan eta jaiegunetan 12:00etatik 14:00etara.

# Arte eszenikoak
## Carmengo entzunaretoan





### JAZZ MUSIKA
OSKAR LAKUNZA & IÑIGO CUENCA QUINTET

**LARUNBATEAN, OTSAILAK 6**

**Musikariak:** Oskar Lakunza, Saxo Tenorea; Iñigo Cuenca, tronpeta; Rakel Arbeloa, Bateria; Ramón García, Pianoa; Luisa Brito, Kontrabaxua.
Jazzaren inguruan bi lagun batzen dituen proiektu sortu berria da, zati berdinetan gozatzeko eta gozarazteko errepertorio bat aurkezten duena.

**Ikusleak:** Gazteak eta helduak. **Iraupena:** 70 minutu.
**Ordua:** 19:00.
**Lekua:** Karmengo Entzunaretoa.
**Aldez aurreko sarrerak:** 8 €.
**Txartel-leihatilan:** 10 €.
**Gazte Txartelarekin:** 5 €.
**Laguntzaileak:** Nafarroako Antzoki Sarea (NAS) Elkartea eta Nafarroako Gobernua.



### ANTZERKIA, TXOTXONGILOAK ETA HAUR MUSIKA
**"Canciones de titiriteros"**
LOS TIRITIREROS DE BINÉFAR

**IGANDEAN, OTSAILAK 14**

**Zuzendaria:** Paco Paricio.
**Interpretatzaileak:** Ahotsa eta animazioa: Eva Paricio; Bateria: Roberto Aquilúe; Haizeak: Pablo Borderías; Teklatu jotzailea eta ahotsa: Faustino Cortés.
Hainbat teknika eta abestitako txotxongiloen zuzeneko ikuskizuna da, eta konpainiak adierazi duenez, "teknika horietara jo izan dugu eraginkortasun dramatiko hutsagatik". "La Despelona", "Un elefante se Columpiaba", "La portera de mi casa", "Sardinas", "El mundo al revés", "Sobre las ruinas" eszenaratzeko, txotxongilo handiak eta beste elementu plastiko batzuk erabiltzen dituzte irudimenaren bidez erritu kolektiboa elikatzeko. Kultura herrikoitik berreskuratutako beste gai batzuk ere biltzen dituzte, hala nola "Periquituli", "¡A jugar!", "Una, dola…" edo "Antón pirulero".
**Ikusleak:** Haurrak eta sendiak. **Iraupena:** 70 minutu.
**Ordua:** 18:00.
**Lekua:** Karmengo Entzunaretoa.
**Aldez aurreko sarrerak:** 3 €.
**Txartel-leihatilan:** 5 €.
**Laguntzaileak:** Nafarroako Antzoki Sarea (NAS) Elkartea eta Nafarroako Gobernua.

# Arte eszenikoak
## Carmengo entzunaretoan





**ANTZERKIA**

**"Losers"**

TXALO PRODUCCIONES

### LARUNBATEAN, OTSAILAK 20

**Zuzendaria:** Begoña Bilbao.
**Antzezleak:** Jon Plazaola eta Aitiziber Garmendia.

Manuel eta Sandra adinean aurrera doaz -ia berrogei-, eta gizakiok tenore horretara ailegatuta, gizarteak markatutako baldintzetatik ez dute bat bera ere betetzen: Umerik ez, bikoterik ere ez eta diruz urri, etxebizitza bat erosteko aukerarik gabe... Horregatik, euren buruak galtzailetzat dituzte. Eta aldatzeko esperantza handirik gabe, ia-ia etsiak jota, pozik bizitzeko merezimendurik izango ez balute bezala. Bizipozak, ordea, ez du mugarik eta areago, ez du zer ikusirik ondasun materialekin edo gizarteak markatzen dituen usadio eta arauen menpe bizitzearekin. Gu geu gara gure bizitzak nolakoa beharko duen erabaki behar dugunak. Geure beldur eta mugak gainditzeko gai izanez gero behintzat.

**Ikusleak:** Gazteak eta helduak. **Iraupena:** 80 minutu.
**Ordua:** 19:00. **Lekua:** Karmengo Entzunaretoa.
**Aldez aurreko sarrerak:** 8 €. **Txartel-leihatilan:** 10 €.
**Gazte Txartelarekin:** 5 €.
**Laguntzaileak:** Nafarroako Antzoki Sarea (NAS) Elkartea eta Nafarroako Gobernua.



**DANTZA Nafarroako Antzoki Sarearen zirkuitua**

**"Tránsitos"**

AMICO TEATRO

### LARUNBATEAN, OTSAILAK 27

**Zuzendaria:** Mercedes Castaño.
**Interpretatzaileak:** Dantzariak: Txori García Uriz, Ion Barbarin Lisarri. Musikariak: Idoia Oteiza, Itziar Etxegia.

"Tránsitos" bidaia intimoa da, hainbat ataletan identitatea bilatzeko. Argian sentsualitatea, fusioa, feminitatea eta harmonia esploratzen ditu. Itzalean, konprometitzen gaituen dualtasuna, kontraesanak eta gatazkak, batzuetan basatiak. Argi-ilun horren gainean dago obraren egitura onirikoa. Hauskortasuna, antzinakoa eta magikoa sorkuntza dramatiko honetan batzen dira.

**Ikusleak:** Gazteak eta helduak. **Iraupena:** 60 minutu.
**Ordua:** 19:00. **Lekua:** Karmengo Entzunaretoa.
**Aldez aurreko sarrerak:** 6€. **Txartel-leihatilan:** 8 €.
**Gazte Txartelarekin:** 5 €.
**Antolatzailea:** Nafarroako Antzoki Sarea.
**Laguntzailea:** Nafarroako Gobernua.

# Ipuin kontalaria



**"Cuentos febriles"**
SERGIO DE ANDRÉS
(Gaztelaniazko ipuin kontalaria).

## ASTEAZKENEAN, OTSAILAK 10

Ez dira tenperatura altuko ipuinak izango, baina lasai geratuko gara, guztiz erlaxaturik.




**"Ipuin bat asteko egun bakoitzerako"**
MAITANE PÉREZ
(Euskarazko ipuin kontalaria).

## ASTEAZKENEAN, OTSAILAK 24

Astelehena, osteguna, larunbata eta igandea... Lau egun bakarrik? Asterik laburrena... Agian ipuin batekin asteko ordena ikasiko dut!

**Ikusleak:** 3 eta 8 urte bitarteko umeak. Adingabeei helduek lagundu behar diete. **Doako sarrera** edukiera bete arte. Gonbidapenak aldez aurretik hartu behar dira. Gehienez ere, 4na sarrera pertsonako eta saioko. Sarrerak ez daude zenbakituta. Ikusleak iritsiera-ordenaren arabera eseriko dira. Gonbidapena erakutsi beharko duzu sartu ahal izateko. Ekitaldia behin hasita, ezin izanen da sartu. Gonbidapenak **otsailaren 2tik** aurrera Kultura-etxean hartu ahal izanen dira, asteartetik ostiralera, 12:00etatik 14:00etara eta eta 19:00etatik 21:00etara, 948 870 251 telefono zenbakira deituta edo emailez infocultura@sanguesa.es helbidera. Atea Ipuin kontalaria hasi baino 15 minutu lehenago irekiko da, jendea ongi koka dadin.

**Ordua:** 18:30.
**Iraupena:** 60 minutu gutxi gorabehera.
**Lekua:** Vallesantoro Jauregia/Kultura-etxeko Erabilera Anitzeko Aretoa.
**Laguntzailea:** Nafarroako Gobernua.

# Hitzaldiak: Zangoza eta eskualdeko ondare eta artea





## "Zangoza Berria"

### OTSAILAK 11, OSTEGUNA

Euskal Herriko Unibertsitateak (EHU) Euskal Herriko bulebarrei eta zuhaztiei buruzko ikerketa-proiektu bat egin du. Bertan, Nafarroako zenbait hiri ere sartzen dira, hala nola Iruñea eta Zangoza. "Los Pozancos", bere kokaleku eta jatorriagatik, proiektuak aztertzen dituen hiriko berdeguneen prototipoari dagokio. Hitzaldi honekin batera, Santos Angel de Ochandateguik hiri neoklasikoari buruz proiektatutako plano eta maketen erakusketa inauguratuko da, 1787ko uholdean hiria suntsitu zela eta. Erakusketa otsailaren 28ra arte egonen da Vallesantoro Jauregiko Erakusketa Aretoan/Kultura-etxean.

**Hizlariak:** Aritz Díez Oronoz eta Andrés Caballero (UPV/EHU).
**Ordua:** 19:30.



## "Zangozako dokumentu-ondarea: erudiziotik kudeaketara"

### OTSAILAK 18, OSTEGUNA.

Eraldaketa zorabiagarriek ezaugarritutako garai historiko batean, dokumentu-ondarea eta haren irudikapen enblematikoa, artxiboa, ez dira bazterrean geratzen. Guztiz artxiboko faktoreak direnak, hala nola erabiltzailearen profilaren bilakaera, lehentasunezkotzat jotzen den dokumentazioaren tipologia, artxibozainaren izaera e.a., Zangozako udal-artxiboak argi eta garbi islatzen dituen aldaketa-prozesu globalen adierazpenak dira.

**Hizlaria:** Carlos Maiza Ozcoidi, Artxibozaina. Balduquena Gestión Documental. S.L.
**Ordua:** 19:30.

# Hitzaldiak: Zangoza eta eskualdeko ondare eta artea






**“Zentral hidroelektrikoak Nafarroan: ehun urteko industria-ondarea. Zangoza eta bere merindadea”**

## OTSAILAK 25, OSTEGUNA

Zentral hidroelektrikoak eraikiz elektrizitatea ekoiztea aurrerapen teknologiko handia izan zen, batez ere industria hornitzera eta argiteria publikora bideratua. XIX. mendearen amaieratik Nafarroako geografia osoan zehar zentralak sortu ziren, eta horien arkitektura eta makineria gaur egun desagertzeko arriskuan dagoen lehen mailako industria-ondarea dira.

**Hizlaria:** Pablo Guijarro Salvador. Nafar Ondare eta Artearen Katedra. Nafarroako Unibertsitatea.
**Ordua:** 19:30.

**Lekua:** Vallesantoro Jauregia/Kultura-etxeko Hitzaldi Aretoa.

**Doako sarrera** edukiera bete arte. Gonbidapenak aldez aurretik hartu behar dira. Gehienez ere, 2na sarrera pertsonako eta saioko. Gonbidapenak **otsailaren 2tik aurrera** Kultura-etxean hartu ahal izanen dira, asteartetik ostiralera, 12:00etatik 14:00etara eta eta 19:00etatik 21:00etara, 948 870 251 telefono zenbakira deituta edo emailez infocultura@sanguesa.es helbidera.

# Musika Eskola “Juan Francés de Iribarren”



**MUSIKA ESKOLAKO IKASLEEN KONTZERTUAK**

## OTSAILAK 9, ASTEARTEA

## OTSAILAK 25, OSTEGUNA

**Ordua:** 19:30.
**Lekua:** Karmengo Entzunaretoa

# Mendiari buruzko jardunaldiak



**PROIEKZIOA**
**"Mendi biluztua"**

## OSTEGUNEAN, OTSAILAK 4

ALEX TXIKONen Nanga Parbateko neguko lehen igoera. (8.126 m.) (Filmaren proiekzioa, Alex Txikon gaur egun espedizioan dago) "Filmak Nanga Parbatera eramaten zaitu irudi ikusgarriekin, neguko espedizio bat nolakoa den sentiarazten dizu" (Alex Txikon). "Duela 100 urte baino gehiago Alfred Mummery Nanga Parbat igotzen saiatu zen 1895ean eta 1953an Hermann Buhl. Azkenean, Alex Txikon, Ali Sadpara eta Simone Moro 2016an izan ziren neguan Nanga Parbaten gailurrera iristea lortu zutenak, alpinismoaren historian mugarri bat ezarriz. Nanga Parbat, Himalayako mendebaldeko muturrean dagoena, munduko bederatzigarren mendirik altuena da eta Pakistango bigarren. Beraz, alpinismoaren historian orrialde berri bat irekitzen da".

**Ordua:** 19:00.
**Sarrera:** 3 €.
**Lekua:** Karmengo Entzunaretoa.

**2020KO MENDI FILM JAIALDIKO PELIKULAK**

## OSTIRALEAN, OTSAILAK 5

- **"Arriesgarse a vivir"**, 2020, Espainia, 37 minutu. Zuzendaria: Santiago Ron. Ideia eta jatorrizko gidoia: Mikel Renteria. Ekoizpena: The Walk On Project Fundazioa (WOP)
- **"L'escalade libérée"**, 2020, Frantzia, 22 minutu. Zuzendaria: Benoît Regord. MF 2020 Epaimahiaren saria.
- **"Everest - The hard way"**, 2020, Eslovakia, 52 minutu. Zuzendaria: Pavol Barabáš. MF 2020 Ikusleen saria.

**Ordua:** 19:00.
**Sarrera:** 3 €.
**Lekua:** Karmengo Entzunaretoa

**Antolatzailea:** Zangozako Kirol Patronatua.
**Laguntzailea:** Vallesantoro Jauregia/Zangozako Kultura-etxea.